

Partikula modalen arteko bateragarritasuna euskaraz

Compatibilidad entre partículas modales en euskera

Compatibilité entre particules modales en basque

Compatibility between modal particles in Basque

MONFORTE, Sergio
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
sergio.monforte@ehu.eus

Noiz jaso: 2021-01-26

Noiz onartua: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 517-542. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ikerketa honetan defendatu da partikula modal bat baino gehiago azal daitezkeela euskaraz. Halaber, aztertzen da hainbat partikularen arteko bateraezintasuna zerk eragiten duen. Horretarako kasu bi hartu dira ikergai: a) ekialdeko hizkeretan polaritatezko itaunetan erabiltzen den *-a* galdera partikula *ote* partikula modalarekin batera agertzen deneko kasuak eta b) *ote*, jokabide ezohikoa duenean, *ahal*-ekin perpaus berean baliatzen deneko kasuak. Argudiatu dudanez, bai lehenengo kasuan, bai bigarrean, gune sintaktiko beregainak edukitzeak ahalbidetzen du partikula horiek bateragarriak izatea.

Gako-hitzak: partikula modalak, bateragarritasuna, sintaxia, interpretazioa, euskara.

En esta investigación se defiende que en euskera puede aparecer mas de una partícula modal. Es mas, se analiza lo que hace posible la incompatibilidad entre algunas partículas. Para ello se investigan dos casos: a) los casos en los que en las preguntas de polaridad de las hablas del este aparecen juntas la partícula interrogativa *-a* y la partícula modal *ote* y b) cuando *ote* tiene un comportamiento no-canónico, los casos en los que aparece junto con *ahal* en la misma frase. Como argumento, tanto en primer como en el segundo caso, el tener ámbitos sintácticos independientes es lo que posibilita que esas partículas sean compatibles.

Palabras clave: partículas modales, compatibilidad, sintaxis, interpretación, euskera.

Cette recherche affirme que l'on trouve dans la langue basque plus d'une particule modale. On analyse aussi ce qui rend possible une incompatibilité entre certaines particules. Pour ce faire deux cas sont analysés : a) lorsque dans les dialectes orientaux on trouve en même temps la particule interrogative *-a* et la particule modale *ote* et b) *Ote* apparaissant de façon anormale, lorsqu'on le trouve figurant avec *ahal* dans la même phrase. Dans le premier comme dans le second cas, le fait qu'il y ait des domaines syntaxiques indépendants permet la compatibilité de ces particules.

Mots-clés : particules modales, compatibilité, syntaxe, interprétation, basque.

This study defends that more than one modal particle can appear in the same clause in Basque and it looks into those contexts which restrict the number of modal particles to one. For that purpose I study the following two cases: a) those where the modal particle *ote* and the question particle *-a* used in polarity questions in eastern dialects occur in the same clause and b) those which contain the modal particle *ahal* and *ote* when the latter behaves syntactically distinct from the usual pattern. As argued, the fact that those particles occupy separate syntactic position allow their compability.

Keywords: modal particles, compability, syntax, interpretation, Basque.

1. Sarrera

Euskarak, beste hizkuntza askok bezala, partikula modalak (edo diskurtsiboak)¹ ditu hiztunaren jarrera edota ikuspuntua eta entzulearekiko harremana markatzeko: *ahal, al, bide, ei, omen* eta *ote*. Horiek beste hizkuntza batzuenekin erkatuz gero, desberdintasun nabarmen bat azalera-tzen da: hizkuntza artean zilegi da perpaus berean partikula bat baino gehiago agertzea; euskaraz, ordea, ez. Hala esan ohi da euskalaritzan (Euskaltzaindia 1987: 500; Mujika 1988: 488), partikula bat baino gehiago ezin direla perpaus berean agertu, alegia.² Beraz, *omen* erabiliz gero, *bide* ezin da azaldu:

- (1) Pandemia Txinatik zabaldu *omen* da.
- (2) Pandemia Txinatik zabaldu *bide* da.
- (3) *Pandemia Txinatik zabaldu *omen bide* da. / *Pandemia Txinatik zabaldu *bide omen* da.

Hizkuntzartekoan, berriz, partikula bat baino gehiago perpaus berean azaltzea ohikoa da; halaber, partikulak beti hurrenkera jakin batean agertzen dira. Esaterako:

¹ Beste hizkuntza batzuetan *partikula modal* terminoaz gain *partikula diskurtsibo* ere erabili izan den arren, euskalaritzan bigarren izendapenak ez du tradizioz, eta honelakoak *partikula modal* etiketapean identifikatu izan dira lan gehienetan (Albizu 1991; Elordieta 1997; Arregi eta Nevins 2012, besteak beste). Hori dela eta, *partikula modal* terminoa hobetsiko dut euskarazko partikulei dagokienez, guztiak modalitatearekin lotuta ez badaude ere.

² Mujikak (1988: 14. oin oharra) partikulatatzat jo litekeen *ohi* eta *omen* bateragarriak izan daitezkeelako froga dakar:

- (i) Beste toki batzuetan ere bizi zitekeela esan *oi omen* zuen.

Dena den, adibidea *El Diario Vasco* izeneko egunkarian agertzen denez, mendebalde zabaleko hizkera dela suposatzen dut. Hori dela eta, *ohi* bezalako partikula dela dirudien arren, ez luke tradizionalki *partikula modalak* deritzeten osagaiei identifikatutako jokabide bera edukiko. Hots, *ohi* partikula ez da laguntzailearekin batera mugitzen mendebalde zabaleko hizkeretan; ekialdekoetan, ordea, bai. Beraz, ekialdeko hizkeretan hurbilago dago ohiko partikula modaletatik.

(4) Kantonera (*laa3* eta *me1*)

Keoi5 maai5 lau2 *laa3 me1* / **me1 laa3?*
 bera erosi pisu P P
 ‘Pisua erosi du dagoeneko?’ (Kuong 2008: 725)

(5) Alemana (*ja, doch* eta *wohl*)


Dieser Satz enthält *ja doch wohl* viele Partikel
 (**wohl doch ja*).
 hau.M.NOM esaldi eduki P P P asko partikula
 ‘Esaldi honek partikula asko ditu JA DOCH WOHL’ (Struckmeier
 2014: 16)

(6) Gitksan hizkuntza (*nee* eta *=ima*)

Nee =ima =hl sdin =hl xbiist =a (**/=ima nee*)
 P P BALD izan.astuna BALD kutxa GALD
 ‘Astuna ote da kutxa?’ (Littell eta beste 2010: 91)

Euskaraz dagoen bateraezintasun hori zerk eragiten duen, hots, sintaxiak ala semantikak, ez dago argi; beste hizkuntza batzuei begiraturaz gero, murriztapen sintaktikoak nahiz semantikoak leporatzen dizkiote kontu horri. Hau adibidez adierazteko lan bi hartuko ditut abiapuntu: Kuong (2008) eta Repp (2013). Alde batetik, Kuongek (2008) kantonerazko partikulak aztertu eta talde bi bereizten ditu: kanpo- eta barne-partikulak. Lehenengoak diskurtsoarekin daude lotuta; bigarrenak, aldiz, hiztunak proposizioarekin duen jarrerarekin edota ikuspuntuarekin. Partikulen arteko konbinazioetan eta hitz-ordenetan oinarrituz esleitzen die Kuongek (2008) partikula taldeei kokagune bana. Horrek ahalbidetzen du bateragarritasuna; baina, era berean, azaltzen du zergatik ez diren mota bereko kideak bateragarriak. Beste alde batetik, hizkuntza germanikoetan ez diete Cinqueri (1999) edo Kuongi (2008) jarraitu semantika-pragmatikan oinarritutako sintagmak proposatuta (cf. Coniglio 2007). Aurreko adibidean (5) ikus daitekeenez, alemanez ere partikula bat baino gehiago erabil daitezke perpaus berean; alabaina, kantoneraz ez bezala, alemanezko partikula bi, *ja* eta *doch*, interpretazioaren aldetik oso hurbil ei daude (Repp 2013). Partikula horien funtzioa ez ezik, ekarpena ere berdina da, Repp (2013) dioenez, eta bien arteko alde ba-

karra da *ja* partikula erabiltzeko baldintzak *doch*-ek ere badituen arren, *doch*-ek *ja*-k ez dituen baldintzak dituela; bestela esanda, zati batean baka-
rrik dira berdinak eta ez euren osotasunean:



Gauzak horrela, badirudi partikula hauek sintagma bera okupatu behar-
ko luketela, analisi semantiko-pragmatikoan oinarrituta. Hala ere, datuek
ez dute horren alde egiten, (5) adibidean egiazta daitekeen bezala, eta, be-
raz, kokagune sintaktiko beregainak proposatu dira. Lan horiek aintzat har-
tuta, bai sintaxiak, bai semantikak ekar lezake euskarazko partikula moda-
lak banaketa osagarrian egotea. Dena den, aurrerago (§ 4) argudiatuko
dudanez, sintaxiak murriztuko luke partikula batzuen arteko bateragarrita-
suna, *ahal* eta *ote* partikulak erabilera orokorrean bateragarriak ez badira
ere, ekialdeko hizkeretan batera azal baitaitezke *ote*-k ezohiko jokabidea
duenean; kasurako:

(8) a. *Ez *ahal ote* duk besterik egiteko? / *Ez *ote ahal* duk besterik egi-
teko?

b. Ez *ahal* duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134)

Horrez gain, aipatzekoa da ekialdeko euskalkietan ohikoa den *-a* galdera
markatzailea. Beronek eta erdialdeko *al* galdera partikulak funtzio antzekoa
ei dute; alabaina, ez datoz bat murriztapen horretan aurretik aipatutako
partikula modalak eta *-a* markatzaile interrogatiboa, berau beste partikula
batzuekin perpaus berean ager daiteke eta. Polaritatezko galderetan erabil-
tzen denez, testuinguru berean azal daitezkeen partikulekin bateragarria da,
ote-rekin, kasurako:

(9) Amatxi Iholdiko *othe zena*? (Camino 2009: 193)

Hala ere, Euskaltzaindiak (1987: 500) dio *-a* eta *ote* partikulak bateraga-
rriak direla, baldin eta *ote*-k parentetikoan moduan jokatzen badu. Artiku-
lu honetan frogatuko dut azterketa hori ez dela zuzena, (9) adibidean da-

goen *ote*-k ez baitu parentetikoan ezaugarriarik, ezta ekialdeko hainbat hizkeratako jokabide ezohikorik ere.

2. Partikula modalak euskaraz: zeintzuk dira?

Partikula modalek kategoria itxia osatzen dute. Hau ez da harrizkekoa, berauek osagai funtzionalak baitira. Beraz, beste kategoria funtzionaletan bezala (postposizioena, kasurako), erraz zerrendatu beharko lirateke bere osagaiak eta nekez gehituko lirateke kide berriak. Ideia horretatik abiatuta, esan liteke, beraz, euskarazko partikula modalen kategoria honako hauek osatzen dutela:

(10) *al, ahal, bide, ei, omen* eta *ote*.

Historikoki gutxi aldatu da zerrenda hau: *al* izango litzateke taldera sartu den kide berriena, XIX. mendearen erdialdetik agertzen baita (Mitzelena; Sarasola 2017); gainerakoak, ordea, lehenengo testuetatik azaltzen dira. Dena den, zer dira *partikula modalak* eta zer kategoria osatzen dute? Beste hizkuntza batzuetako gramatika-lanei begiratu gero, ez dago argi termino horren barruan taldekatu diren osagaiak eta euren ezaugarriak zeintzuk diren; hots, oso kategoria lausoa da. Egia esan, aurreko atalean (§ 1) aditzera eman dut euskararen eta gainerako hizkuntzen artean desberdintasun argi bat dagoela: euskaraz partikula modal horiek ez dira bateragarriak. Aintzat hartuta kategoria hori ez dela argia, pentsa liteke horren arrazoa kontzeptuala dela, partikula modalak definitzeko moduak eragiten duela, alegia; beraz, lehenik eta behin galdera honi erantzun behar zaio: zeri deritzogu *partikula*?

Gramatika-lanetan izendapen hori erabili izan da funtzio ugariko osagaiak biltzeko: denbora, aspektua, modua, ezeztapena, ebidentzialtasuna, galderatasuna, epistemikotasuna eta, oro har, diskurtsoari lotutakoak adierazten dituzten horiek (Biberauer eta Sheehan 2011). Hala ere, aspektua markatzeko baliabideak hizkuntza guztiek dituzte, eta funtzio hori adierazteko darabiltzagun osagaiei ez diegu *partikula* deitzen hizkuntza guztietan. Alegia, *-t(z)en* morfema ez dugu partikulatzat hartzen euskalaritzan; dena

den, *ohi* bai jo daiteke partikulatzen, ekialdeko euskalkietan behintzat. Beraz, funtzio horiek dituzten guztiak ez dira partikulak.

Funtzio ezberdinetako osagaiak izateaz gain, gramatika-lanei begira argi geratzen da partikulak ez daudela eremu sintaktiko bakar bati lotuta; aitzitik, hainbat eremutan kokatu izan dira, e.g., Aditz Sintagman, Denbora (/Inflexio) Sintagman eta Konplementatzaile Sintagman. Horrelako banaketa ebidentzia jakin batzuetan oinarrituz proposatu da, esaterako: partikulen arteko hurrenkeran eta hierarkietan edota partikulek bestelako osagaiekin dituzten banaketan edota jokabideetan. Alegia, hizkuntzalaritza germaniarrean partikulek aditz lexikoarekin eta inflexioarekin duten hurrenkeraz baliatu dira hizkuntzalariak (Abraham 1991; Coniglio 2007; Bayer eta Obenauer 2011; Struckmeier 2014) hizkuntza horietako partikulak zein eremutan azaltzen diren zehazteko. Banaketak partikulen ekarpenarekin edo funtzioarekin zerikusia duela pentsa liteke; hala ere, Cardinaletti (2011) eta Bayer eta Obenauerrek (2011) adierazten duten bezala, partikulen kokapenak ez du zertan bat etorri ekarpen semantiko-pragmatikoaren eremuarekin. Kasu baterako, alemanezko partikula modalek KonpS-n dute eragina, Denb/InfS-ren eremukoak diren arren. Horrenbestez, beste kategoria funtzional batzuek ez bezala, partikula modalen kategoriak ez du testuinguru sintaktiko jakinik edo ez zaio horrelakorik identifikatu, behintzat.

Gauzak horrela, oso iluna da *partikula modalen* izaera eta, ondorioz, kategoria. Izan ere, eztabaida hau zabalik dago. Kasu batzuetan zalantzan ipintzen da partikula modalak berak ba ote diren ere, abiapuntuko kategoriari dagozkiola argudiatuta; bestela esanda, alemanezko *schon* partikula modala *schon* adberbiotik eratorri da, eta, bien arteko muga lausoa denez, biak adberbio bera direla diote (Cardinaletti 2011; cf. Abraham 1991). Hori dela eta, hizkuntza erromantzeetan eta germanikoetan ohikoa da eztabaida hori (Coniglio 2007; 2008; Bayer 2009; Bayer eta Obenauer 2011; Cardinaletti 2011; Scherf 2017), partikula modalak adberbioak ote diren, alegia. Beste kasu batzuetan *partikula* terminoa luzaro erabili da, eta, onartuago dagoen arren, horrek ez du esan nahi argi dagoenik zeintzuk jo behar diren partikulatzen; Paul eta Panek (2017) diotenez, termino faltsu hori baliatzen da mandarinezko gramatiketan kategoria garbirik ez duten hitzak (gehienetan silaba bakarrekoak) sailkatzeko. Gai hori, hala ere, artikulu honen helbu-

ruetatik urruntzen da; beraz, Biberauer eta Sheehanen (2011) lanean oinarritutako definizioari jarraituko diot:

- (11) Partikulek arlo morfologikoan, fonologikoan, semantiko-pragmatikoan edota sintaktikoan beste kategoria batzuek baino urritasun maila handiagoa dute eta funtzio bat baino gehiago biltzen dituzte.

Lehenengo ideia lot daiteke Cardinaletti & Starkek (1999) eta Cardinaletti (2011) erakusleak edo partikula modalak sailkatzeko erabiltzen dituen argumentuekin. Azken autore horrek defendatzen du partikula modalak adberbioen kategoriakoak direla; hala ere, ez dira ohiko adberbioak bezalakoak: azken hauek adberbio osoak izango lirateke; partikula modalak, aldiz, ahulak, eta kasu batzuetan, klitikoak direla aldarrikatzen du. Arlo fonologikoan, sintaktikoan edota semantikoan sumatzen diren ahultasun edo galeretan dautza bereizketa horiek. Hala ere, ezaugarri horrek ez ditu partikulak beste kategorietatik guztiz desberdintzen, preposizioak eta postposizioak ere morfologikoki ahulak izan baitaitezke. Hori dela eta, Biberauer eta Sheehanek (2011) zehazten dute partikulek eginkizun bat baino gehiago dutela, esaterako: ingelesezko menderagailuei eta mandarinezko perpaus amaierako partikulei erreparatuta, lehenengoen perpausa mendekoa dela adierazteko funtzioa soilik dute; azkenek, ordea, markatzen dute zein den perpaus mota (deklaratioa, galdera, harridurazkoa, agintera...) eta ea perpaus nagusia ala mendekoa den.

Definizio horrek partikulak ezaugarritzen dituen arren, gure ikergaia partikula modalak dira. Beraz, propietate bi horiei beste hau gehitu beharko litzaieke: partikula modal batzuek jarrera ebaluatzaile, ebidentzial edo epistemikoa dakarkioten diskurtsoari; beste hainbatek, berriz, elkarrizketa kudeatzeko balio dute.

Hortik abiatuta, beste osagai batzuk erants lezizkioke euskarazko partikula modalen multzoari. Hasteko, ekialdeko hizkeretan *omen* eta *ote* partikulek erabilera ezohikoa dute, eta orain deskribatutakoaren arabera horiek ere partikulatzen hartu beharko lirateke (eta ez soilik *omen* eta *ote* partikula modal ohikoei lotuta daudelako). Horiez gain, tradizioan partikula modal etiketapean agertu ez diren osagaiak talde honen barruan sailka litezke,

hala nola *antza*, *ba(da)*, aspektua markatzen duen *ohi*, perpaus amaierako *baina* edo *gero*. Azkenik, gramatika-lanetan *tags* deitutakoak ere ager litezke partikula modalen multzoan, diskurtsoa eta, hainbatetan, hitzunaren eta entzulearen jarrerak kudeatzen dituzten heinean: *ala?*, *e*, *ezta?*, *ez?* eta abar ere:

- (12) Nora zoaz *ba(da)* hain berandu?
- (13) Jatetxe horretan bazkaldu *ohi* du. / Jatetxe horretan bazkaltzen *ohi* du.
- (14) Zuk ulertu duzu *baina*?
- (15) Handia da, *gero!* Horrelakorik entzun behar izatea ere! (Zubiri eta Zubiri 1995: 577)
- (16) Tamara Gabonetan etorriko da, *ezta?* / *ez?*
- (17) Bazatoz, *ala?*
- (18) Ez esan inori *e!* (Lizardi-Ituarte 2019a)

Horrek guztiak ahalbidetuko luke euskaraz partikula bat baino gehiago egotea; egia esan, horrelako adibideak erraz topatzen dira:³

- (19) Zer ote liteke *ba* neretzat, buruz jokatzea? (Larzabal 1992)

Hala ere, ohiko partikula modaletatik hurbilago dauden batzuetara mugatuko dut artikulu honen ikergaia, *-a*, *ahal* eta *ote* (bai jokabide ohikoan, bai ezohikoan) partikuletara hain zuzen ere, euren arteko bateragarritasuna ezinezkoa dela esan delako (*ahal* eta *ote* partikulen kasuan) edo ezbaian ipini delako (*-a* eta *ote* partikulei dagokienez). Hurrengo atalean azken horiei begiratuko diet, ekialdeko euskalkietako markatzaile interrogatiboari eta ohiko *ote* partikulari, alegia.

³ Egia da izaera sintaktiko desberdina dutela partikula horiek eta, alde horretatik, ez dutela talde homogeneorik osatzen. Dena den, badirudi egoera ohikoa dela: Scherfen (2017) arabera, suedieraz, adibidez, partikula batzuek *al*, *ahal*, *bide*, *ei*, *omen* eta *ote* partikulek bezala jokatzeko dute, eta aditzarekin batera mugitzen dira; beste batzuek, aldiz, ez, euskarazko *bada*, *antza*, *gero* eta abarrek bezala.

3. Partikula biren bateragarritasun ukatua: *-a* eta *ote*

Arestian esan bezala, aditz jokatuaren aurrean kokatzen diren partikuletara mugatu da partikula modalen multzoa euskaraz. Dena den, talde hori handi daitekeela ikusi dugu aurreko atalean; kide horietako bat ekialdeko markatzaile interrogatiboa litzateke. Egia esan, Euskaltzaindiak (1987) ohiko partikula modalak eta *-a* taldekatzen ditu elkarrekin “aditz multzoari erantsitako bestelako osagaiak” etiketapen. Euren arteko aldea da *-a* aditz jokatuaren ondoren atxikitzen dela:

(20) Ontsa zirea?

(21) Hartzen ahal datazia buata gorri hori?

Partikula hau polaritatezko galderen markatzaile gisa deskribatu dute gramatikariak (Darrigol 1827; Chaho 1836; Archu 1853; Gèze 1873; Campión 1884; Ithurri 1895; Lafitte 1944; Arotçarena 1976; Villasante 1980; Euskaltzaindia 1987; Urquizu 1996; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003). Honela deskribatzen du Euskaltzaindiak atzizki galdetzailea:

Normalean adizki jokatuari eransten zaion atzizki hau bai/ez moldeko galde jeneralak markatzeko erabili ohi da, ekialdeko euskalkietan batez ere. (Euskaltzaindia 1987: 498)

Atzizki honen erabilera zehazten erraza da: berez itauna markatu baizik ez du egiten; ez du, alegia, berez bestelako ñabardurarik erantsen. (*Ibidem*: 501)

Horrenbestez, bere erabilera polaritatezko itaun zuzenetara dago mugatuta, zehar-galderetan ezin baita erabili, *al* ez bezala.

Bere eremu geografikoa Zuberoako lurraldetik Lapurdiko Hazparne eskualdera⁴ hedatzen da; Larresoron, Uztaritzen, Milafrangan, Jatsun, Hal-

⁴ *Euskararen Herri Hizkeren Atlasak* (Euskaltzaindia 2016) 1754, 1774, 1782 eta 1787 mapetan eskaintzen dituen datuei erreparatu gero, partikula honen mendebaldeko isoglosa honela zehatz liteke: Mugerrek iparraldean eta Itsasuk hegoaldean partikuladun hizkeren muga markatzen dute; Basusarrik eta Arrangoitzek iparraldean eta Ainhoak hegoaldean, ordea, partikularik gabeko eremua. Hala ere, hainbat herritan ezaugarri hori tokiko hizkerarena ez bada ere, ondoko herrietan ohikoa denez, hiztun batzuek ontzat ematen dituzte *-a* partikulaz osatutako galderak, nire ustez,

tsun, Zuraiden eta Ezpeletan, ordea, ez (Epelde 2003: 229; Zuazo 2014; cf. Unamuno eta beste 2012). Hori dela eta, ezin da erdialdeko *al* partikularekin batera agertu, perpaus mota berekoak diren arren; hots, euskalki desberdinetakoak direnez, ez dago partikula biak erabiltzen dituen hiztunik. Hala ere, *ahal* eta *ote* partikulekin bateragarria izan daiteke, eremu geografiko eta sintaktiko bera baitute. Oraingoan *ote* eta *-a* partikulen arteko bateragarritasunari erreparatuko diot; erruz topatzen dira partikula biak dituzten adibideak:⁵

- (22) Miñarri mendiaren sabela gatzez beterik *ote* datekea? (Camino 2017: 500)
- (23) Amatxi Iholdiko *othe* zena? (Camino 2009: 193)
- (24) Jin *othe* dea? (Euskaltzaindia 2016)
- (25) Ez *ote* deia arren deüs ere etxe hontan guretako? (Davant 2008: 76)
- (26) Ezagutzen *ote* duka Peio eskultorea? (Erdozaintzi-Etxart 1982)
- (27) Etxearen saltzapenetik ez *ote* duguia horrena bederan altxatuko? (Thikoipe 2009: 115)
- (28) JONEK *ote* dia hori erran? (Monforte 2018)

Euskaltzaindiaren (1987: 500) arabera, (22-28) bezalako adibideak ezinezkoak dira, *ohizko jokabidearen salbuespen bakarra eta harrigarria* hain zuzen. Akademiaren ustez, egoera jakin batean bakarrik ager litezke *ote* eta *-a*

bere erabilera ezagutzen dutelako. Esate baterako, Arrangoitzeko hiztunek, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* datu batzuen arabera, *-a* erabiltzen dute (edo, behintzat, onesten dute bere erabilera); hala ere, Maitena Duhalde (a.k.) ez du horrelakorik jaso bere tesirako egindako elkarrizketetan.

⁵ Ohikoa ez bada ere, *ahal* eta *-a* partikulak perpaus berean agertzea ez dute guztiz bazterten ekialdeko hizkeretako hainbat hiztunek, esate baterako:

Ez *ahal* duzia ogia ekarri?

Ez *ahal* duziua zuhaurek doidoietan hori aitortu? (Larzabal 1992)

Adibide hori besterik ez dut laginean topatu, eta *Euskal Klasikoen Corpus* eta *Ereduzko Prosa Gaur* corpus arakatazeletan bat ere ez; ez, behintzat, *ahal* partikula eta ez aditz modala duen adibide argirik. Etorkizunean aztertzekeo geratzen da, beraz, gai hau.

partikulak batera, *ote*-k parentetiko moduan jokatuko balu, alegia. Kasu baterako:

- (29) Ez dea *ote* miliun bat Euskaldun lur huntako zoko guzietan hedaturik? (Euskaltzaindia 1987: 509)

Hori aintzat hartuta, *ote* hori ez litzateke, alde batetik, sintaktikoki aditz jokatuari atxikitako buru bat eta, beste alde batetik, perpaus mailako sintaxiaren parte. Jarraian erakutsiko dut analisi hori ez dela zuzena ebidentzia sintaktiko eta prosodikoetatik abiatuta; gainera, sintaxiaren aldetik ez dago partikula horiek perpaus berean agertzeko murriztapenik, argudiatuko dudan bezala, gune desberdinetan kokatzen baitira.

Hasteko, *ote* parentetikoa zeri deritzoten azalduko dut. Ekialdeko hizkera batzuetan *omen* eta *ote* partikulek ez diote ohiko jokabideari jarraitzen, ez baitute aditz jokatuarekin bat egiten; kasurako:

- (30) Protestanteen komentu batean *omen* eskolarazi zuen. (Etxepare, Uria 2016: 269)
- (31) Eta gero Jainkoa zertako dugun *ote* samur, estonatuko gira gu! (Hiriart-Urruty 1971b)

Dena den, ez du ematen *parentetiko* etiketa egokia denik; Etxepare eta Uriak (2016) *omen*-en aldakortasuna aztertzen dute eta, erabilera ezohikoaren artean parentetikoa (32) identifikatzen badute ere, guztiak ez dira parentetikoak (33):

- (32) Erdi aroan, *omen*, Nafarroa osoa hona etortzen zen. (Etxepare, Uria 2016: 273)
- (33) Eüskaldüna zen lehenago *omen* popülü ez ikasia (ibidem: 270).

Monforteren (2020b) analisisian, ordea, ez dago *ote* parentetikorik; hiru *ote* ezohiko bereizten ditu, eta, parentetikoek ez bezala, hirurek gune sintaktiko jakina okupatzen dute. Lehenik, *ote* azaltzen da aditz jokatuaren eta, agertuz gero, *ba(da)-ren* ondoren, baina subjektuaren aurretik; bigarrenik, *nz*-hitzaren ondoren agertzen da partikula; eta, azkenik, esaldi amaieran dago *ote*:

(34) Aditz lexikoa - aditz laguntzailea - (*bada*) - *ote* - subjektua...

Nor deitzen du *bada ote* Peiok egun guziz hain goizik?

(35) *Nz*-hitza - *ote* - aditz lexikoa - aditz laguntzailea...

Nor *ote* deitzen du Peiok egun guziz hain goizik?

(36) Aditz nagusia - aditz laguntzailea - bestelako osagaiak - *ote*

Ez duzu horren berririk ukan *ote*?

Beraz, *ote* ezohikoaren erabilera horiek oso egitura zurrinak dituzte, eta ezin dira perpausaren edozein tokitan agertu; parentetikoa izango balitz, malguago jokatzea espero genuke kokapenaren aldetik.

Halaber, beste ezaugarri sintaktiko bat nabarmendu nahiko nuke, parentetiko izaeraren kontra baitoa. Ezaguna da fokua eta aditz jokatuaren artean ezin dela ezer tartekatu, ezta parentetikorik ere:

(37) Nora (*oraingoan) joan da Ekaitz (oraingoan) korrika egitera?

Hala ere, (28 & 35) adibideetan *ote* partikula fokua eta aditz jokatuaren artean dago. Alde batetik, (35) adibidean aditzaren eta *nz*-hitzaren arteko ondokotasuna ez legoke apurtuta, banaketa linealak iradoki dezakeen bezala; hurrengo adibideetan agerian geratzen denez, partikulak bat egiten du *nz*-hitzarekin eta sintaktikoki osagai bakarra osatzen dute:

(38) Zendako *ote* Peiok hori erran data? (Monforte 2020a)


Izan ere, '*nz-ote*' bezalako egitura ezagunak dira beste hizkuntza askotan; hala nola italieraz (Munaro and Poletto 2002; Coniglio 2008), alemanez (Trotzke eta Turco 2015), Dolomitako ladineraz (Hack 2014) eta japonieraz (Endo 2018). Beste alde batetik, (28) adibidean ez dugu *nz*-hitzik eta nekez esan dezakegu izenek bat egiten dutela *ote*-rekin, bestela, adibide gehiago egon beharko bailirateke; alabaina, ez da horrela gertatzen. Nire ustez, (28) adibidean dagoen *ote* ez da ekialdeko hizkeretako bereizgarri hori; aitzitik, ohiko partikula da, aditz jokatuaren aurrean agertzen baita. Gogora dezagun *ote* ezohikoek oso kokapen zurrinak dituztela eta horietako batean ere ez dela aditz jokatuari lotua, are gutxiago bere aurrean, ohiko jokabidean bezala.

(39) JONEK [ote dia] hori erran?


Gauzak horrela, (28) adibide horietako *ote* partikula euskalki guztietan lekukotzen den partikula bera da, eta, jakina denez, nekez izan daiteke parentetiko.

Bestalde, horrelako esaldien prosodiak oraingo hipotesiaren alde egiten du, (22-28) adibide horietako partikularen prosodiak ez baitu erakusten parentetikoek eragiten duten intonazio patroia; aitzitik, *ote*-k bat egiten du aditz jokatuarekin, ohiko partikula modalen jokabideari jarraituz (Monforte 2020a). Konpara ditzagun bien patroia prosodikoak:

(40) a. Non utzi ote (d)ut kazeta?




b. JONEK ote dia erran?




Ikus daitekeenez, *ote*-ren intonazioa kasu bietan laua da, ohiko partikula modaletan espero genukeen bezala. Gauzak horrela, ezin zaio parentetiko izaera esleitu (40b) adibideko *ote*-ri, ezta izaera ezohikoa ere. Izan ere, (41) adibideko partikularen intonazioarekin konparatuz gero, erraz igartzen da kasu horretan partikulak izaera prosodiko beregaina duela:

(41) Nor deitzen du ote Peiok egun guziz hain goizik?



Bigarren silaban herskari ahoskabe bat edukitzeak intonazioa markatzen duen marraren irregulartasuna dakarren arren, badirudi prosodikoki *ote*-k goranzko intonazioa duela; horrek ematen digu aditzera intonaziozko talde baten mugan dagoela. Era berean, bokalen iraupena da *ote*-k bere erabilera ohikoarekin alderatuta duen beste desberdintasun bat: *ote*-ren bigarren bokala luza dezakete hitzunez, intonazioaren arabera, pausa baten aurrean; erabilera kanonikoan nekez ekoitz liteke horrelakorik. Ezaugarri horiek ez dute bat egiten oraingo aztergaia den *ote*-renekin.

Ondorioz, honek berresten du (22-28) adibideetako *ote* ohiko partikula dela, bere ezaugarri sintaktikoekin ez ezik, prosodikoekin ere bat baitator. Are gehiago, horrelako kasuetan ditugun *-a* eta *ote* partikula biak hezurdu-ra sintaktikoko buruak dira; alabaina, ez dute gune bera okupatzen (Monforte 2020a): lehenengoa Konplementatzaile Sintagmaren eremuan (edo Ezker Periferian) kokatzen dut; bigarrena, ordea, Denbora Sintagmaren eremuan (edo Erdiko Eremuan). Gune sintaktiko desberdinak edukitzeak bateragarritasun sintaktikoa ahalbidetzen du:



Horrez gain, interpretazioaren aldetik ere ezkongarriak izan behar dute partikulek, perpaus berean batera agertu ahal izateko, eta oraingo kasuan badira. Egia esan, aurretik aditzera eman dudan bezala, egoera hau ez da batere bitxia beste hizkuntza batzuei erreparatzen badiegu, hizkuntza gehienetan ohikoa baita partikula modal bi aldi berean erabiltzea, are gehiago izaera pragmatiko desberdinak dituzten kasuetan, horietako bat galdera partikula eta bestea epistemikoa edo ebidentziala direnean, alegia. Egoera horixe dago (22-28) adibideetan.

Ekialdeko markatzaile interrogatiboa eta *ote* bateragarriak direla frogatuta eta sintaxiaren eta interpretazioaren aldetik ez dagoela murriztapenik argituta, jarraian ikertuko dut zerk eragiten duen *al, ahal, bide, ei, omen* eta *ote* partikulen banaketa osagarria; hots, ea arrazoi sintaktikoez ala arrazoi semantiko-pragmatikoez galarazten duten euren arteko bateragarritasuna.

4. Ohiko partikulen bateraezintasuna ezbaian

Euskaraz ohiko partikula modalak banaketa osagarrian daudela eman dut aditzera aurretik (§1). Gainera, propietate hori ez bide da ohikoa beste hizkuntzei erreparatuz gero; Cinquek (1999) bere azterketa kartografikoan erakusten duen bezala, konbinazioak askotarikoak izan daitezke, tipologia eta familia desberdinak dituzten hizkuntzen datuetan oinarrituz. Euskarazko partikulei dagokienez, aurreko atalean (§3) frogatu dut ekialdeko *-a* markatzaile interrogatiboa *ote* partikularekin batera ager daitekeela; are gehiago, bateragarritasun kopurua handitzen da partikula modalen multzoa zabalduz gero, *ba(da)* bezalako partikulak ohiko partikula modalekin eruz erabiltzen dira eta:

(43) Nor deitzen ote du ba Peiok egun guziz hain goizik?

Aldiz, ohiko partikula modalen artean ezinezkoa da bat baino gehiago agertzea:

- (44) *Suediara itzuli *omen bide* da Per. / *Suediara itzuli *bide omen* da Per.

Dena den, ekialdeko hizkeretan *ahal* eta *ote* bateragarriak direla agertzen zaigu:

- (45) Ez *ahal* duzu *ote* horren berririk ukan?
 (46) Ez *ahal* duk besterik egiteko *ote*? (Thikoipe 2009: 134)

Hauek bezalako adibideek gogora dakarte lehen (§1) mahaigaineratutako galdera: ea bateraezintasuna sintaxiak ala semantika-pragmatikak eragiten duen. Hurrengo lerroetan galdera hau argitzen saiatuko naiz eta argudiatuko dut sintaxiak galarazten duela *ahal* eta *ote* partikulak batera agertzea euren erabilera ohiko edo orokorrean.

Hasteko, esan behar da adibide horietako partikulek ez dutela sintaktikoki izaera bera;⁶ aurreko atalean (§3) erakutsi dut *ote* partikulak jokabide beregaina duela ekialdeko hizkeretan, bai sintaktikoki, bai prosodikoki. Datu horietatik abiatuta, Monfortek (2020a; 2020b) proposatzen du jokabide ezohikoa duen *ote* islapen nagusia dela; ohiko partikulak, ordea, buruak dira:⁷

⁶ Hala ere, literaturan jokabide ohiko partikula biak biltzen dituen adibide bi topatu ditut:

(i) Errekako ure edaten *oten al* da? ‘Est-ce qu’on peut boire l’eau de la rivière?’ (N’Diaye 1970: 231)

(ii) Eta ez *ete al* nabe danetatik kanpora aterako. (Agirre 1897)


Dena den, adibide bakarrak direla gogoan eduki behar da eta (i) adibidean *ote* partikula dagoen eztabaidagarria da; N’Diayek (1970) dio *-n* gehitzen zaiola partikulari *al*-ekin batera agertzen denean. Hala ere, ‘egoten > oten’ aditza ere izan liteke, kontsonante gehigarriaren azalduko lukeena. Honez gain, hiztunen iritzi gramatikalak kontuan hartuz gero, ez bide da onargarria, gaur egun behintzat.

⁷ Etxeparek (2010) eta Etxepare eta Uriak (2016) ere *omen* partikulari izaera bi horiek identifikatzen dizkiote.

- (47) a. Izaera sintaktikoa = burua = X^0
 Nor deitzen [ote]_{X⁰} du Peiok egun guziz hain goizik?
- b. Izaera sintaktikoa = islapen nagusia = XS
 Nor deitzen du [ote]_{XS} Peiok egun guziz hain goizik?

Izaera sintaktikoa ez ezik, kokapen sintaktikoa ere bereizia dute; (47) adibideetako partikulei begiratzuz gero, honako guneak identifika daitezke: batetik, (47a) adibideko *ote* Erdiko Eremuan edo DenbS-ren eremuan agertzen da, 3. atalean esan bezala; bestetik, (47b) adibideko partikula Ezker Periferian edo KonpS-ren eremuan azaltzen dela proposatzen du Monfortek (2020a; 2020b). Ezohiko *ote*-ri azken gune hori esleitzeko osagaien banaketa aintzat hartzen du, bera beti agertzen baita subjektuaren aurretik eta FokS-ra mugitutako osagaien ondoren, foku edo *nz*-hitzen eta aditzaren ondoren, alegia; horrez gain, DenbS-ren elipsiak ez dakar ezohiko partikula hori ere isiltzea, ohiko partikulen kasuan ez bezala. Gauzak horrela, FokS-ren eta DenbS-ren artean kokatzen du Monfortek (2020a; 2020b) ezohiko partikularen gunea. Esaterako:

- (48) [Nor]_{nz-hitza} [deitzen du]_{aditz multzoa} ote [Peiok]_{subjektua} egun guziz hain goizik?
- (49) Nork apurtu du Beñaten berina? [_{FokS}Celinek] ote [_{DenbS}Beñaten berina apurtu du]?



Arestian bateraezintasun horren arrazoia (sintaktikoa edo semantikoa) zein izan ote litekeen galdera erantzun gabe utzi dut; orain, ordea, adibide hauek abiapuntu hartuta, auzia argitzeko moduan nagoela esango nuke. Adibide horietan *ahal* eta *ote* perpaus berean agertzeak argudio sintaktikoaren alde egiten du; hots, partikula modal bat baino gehiago ezin da azaldu gune bera okupatzen dutelako, *ahal* eta *ote* partikulen kasuan behintzat, izaera sintaktiko desberdina dutenean bateragarriak baitira. Izan ere, adibide horietan agertzen den *ote* mota ez da ohikoa, arestian argudiatu dudan bezala, ekialdeko hizkeretako bereizgarria baizik; horrelako kasuetan, *ote* ez da beste partikula modalek okupatzen duten gunean agertzen, eta, ondorioz, honek beste partikula modal bat azaltzea ahalbidetzen du.

Bestalde, murrizketa semantiko-pragmatikoa baztertu behar da (45-46) adibideetan oinarrituta; izan ere, interpretazio bateraezinak eduki balituzte, nekez ager litezke perpaus berean, sintaxia desberdina luketen arren. Hala ere, lehenengo begiratuan proposizioari egiten dioten ekarpenaren aldetik partikula horiek ez bide lirateke oso bateragarriak izango *ahal*-ek segurtasun handia eta *ote*-k zalantzak adieraziko balituzte; dena den, Monforteren (2021) ildotik *ote*-ren bitartez hitzunaren barne hausnarketa adierazten dela onartuz gero, ez legoke partikula biak bateraezinak izateko arrazoirik. Gainera, (45-46) adibideak galderak dira, are gehiago (46) galdera erretoriko argia da. Gogoan eduki behar da partikula horiek ez dituztela galderak erretoriko bihurtzen, galdera erretorikoetan agertzen diren arren; aitzitik, berez galdera erretorikoa den horri ekarpen interpretatiboa egiten diote. Testuinguru horiei gehitzen dieten ekarpena argia ez bada ere eta oraindino asko ikertzeko badago ere, horietako batzuetan *ote* erabiliz hautematen den interpretazioan hitzunak proposizioa aurkezten du berarekin guztiz bat egitea aukera bakarra izango balitz bezala (Monforte 2020); ikus adibide hau:

(51) - Joseba mutil ona da. - *Ete* dan ba! (Etxaburu 1972: 105)

Horiek horrela, testuinguru erretorikoetan funtzio ez oso desberdina duten partikula bi agertzea ez da harritzekoa 1. atalean plazaratutako ale-

manezko *doch* eta *ja* partikulen egoera gogoan edukiz gero;⁸ alegia, partikula horiek testuinguru deklaratiβοetan azaltzen direnean, antzeko ekarpena egiten diote proposizioari (Repp 2013; Döring 2016), eta, dena dela, bateragarriak dira. Bateragarritasun hori azaltzeko proposatu izan da (Repp 2013; Döring 2016) *ja*-ren eremu interpretatiβο osoa *doch* partikularen zati bat dela, (7) adibidean irudikatu dudana bezala. Hau aintzat hartuta, antzeko egoera proposa liteke *ahal* eta *ote* partikuletarako, biek proposizioaren gaineko balorazioarekin zerikusia baitute, baina *ahal*-ek bakarrik erakusten du eremu interpretatiβο murriztagoa, i.e. konpromiso maila handia soilik:



Horrenbestez, partikula horien alde semantiko-pragmatikoek ikerketa sakona behar duten arren, ez dirudi alderdi horrek galarazten duenik *ahal* eta *ote* partikulak batera agertzea.

Laburbilduz, *ahal* eta *ote* partikulak batera azal daitezke baldin eta gune sintaktiko beregainak badituzte, ekialdeko hizkeretako datuek erakusten duten bezala. Hortik abiatuta, hasierako galdera erantzun dezakegu: euskaraz ohiko partikula modalek gune sintaktiko bera dute eta horren ondorioz daude banaketa osagarrian.

⁸ Alemanez ere partikula bi ager daitezke galdera erretorikoetan: *denn* eta *schon* (Gödeke 2019: 50):

- | | | | | | | | | |
|-----|-------|------|---------|-------|---------|---------|---------------|-----|
| (i) | Wer | will | denn | schon | in | einem | Arbeitszimmer | mit |
| | Blick | auf | die | Wand | sitzen? | | | |
| | nor | nahi | PART | PART | IN | bat.DAT | langela | COM |
| | bista | LOK | ART.FEM | horma | eseri | | | |

‘Nork egon nahi ote du bulegoan hormari begira eserita?’

Alabaina, funtzio desberdina dute berauek: lehenengoak hiztunaren eta entzulearen arteko harremana egituratzen laguntzen du; bigarrenak, ordea, hiztunaren jarrera adierazten du. Egia esan, funtzioei begira, partikula hauek *-a* eta *ote* partikulekin konpara litezke, lehenengo funtzionalagoa eta bigarrena modalagoa baitira.

5. Ondorioak

Beste hizkuntzetan ez bezala, euskaraz ezin ei ziren partikula modal bi (edo gehiago) perpaus berean erabili (Euskaltzaindia 1987: 500; Mujika 1988: 488). Dena den, ez zegoen argi murriztapen horren arrazoia zein izan zitekeen, sintaktikoa ala semantiko-pragmatikoa, alegia. Artikulu honetan zehar auzi horiei heldu diet: a) euskarazko partikula modalen arteko balizko bateraezintasunari eta b) murriztapen horren zergatiari. Alde batetik, erakutsi dut euskaraz partikula modal bat baino gehiago ager daitezkeela perpaus berean; partikula modalen multzoa oso itxia da euskaraz, baina, berau zabalduz gero, sarritan erabiltzen dira partikula bat baino gehiago batera. Dena den, horrez gain, tradizioan talde horren kideztat hartu izan diren horien arteko bateragarritasuna utzi dut agerian. Artikuluan jorratutako kasuak honakoak izan dira: a) ekialdeko hizkeretako *-a* galdera partikula eta *ote* partikula modala; eta b) *ahal* partikula modala eta *ote* partikula ekialdeko hizkeretan. Lehenengoari dagokionez argudiatu dut horrelako kasuetan partikula biek jokabide ohikoari jarraitzen diotenean ere bateragarriak direla; izan ere, gune sintaktiko desberdinak dituztenez, ez dago biak aldi berean erabiltzeko oztoporik. Bigarrenaren aldetik erakutsi dut partikula hauek ez direla bateragarriak, *ote*-k ohiko jokabide sintaktikoa baldin badu; ekialdeko hizkeretan *ote* partikulak kokapen sintaktiko beregaina ez ezik, izaera sintaktiko desberdina ere eduki dezake eta horrek ahalbidetzen du *ahal* partikula ohikoarekin batera agertzea, gune bereziak baitituzte.

Beste alde batetik, ohiko partikula modalen arteko bateraezintasuna zerk eragiten duen galdera erantzun dut. Murriztapen hori sintaktikoa dela proposatu dut, ekialdeko hizkeretan *ote*-ren mikroaldakortasunaz baliatuta. Partikula horrek jokabide ezohikoa duenean *ahal*-ekin batera agertzeak frogatzen du interpretazioaren aldetik ez duela elkarrekin erabiliak izateko arazorik, eta, horren ondorioz, sintaxiak eragiten duela partikula modalen murriztapena, berau desberdina denean bateragarriak baitira. Halaber, ekialdeko galdera partikularen eta *ote*-ren arteko bateragarritasuna sintaktikoa da, gune desberdinak dituztelako partikulek, bai erabilera ohikoan, bai ezohikoan. Hots, Euskaltzaindiaren (1987) ustearen kontra, partikula bi horiek batera azal daitezke, *ote*-k jokabide ohikoari jarraitzen dionean ere.

Erreferentzia bibliografikoak

ABRAHAM, Werner (1991). «Discourse particles in German: How does their illocutive force come about», in Werner Abraham (arg.). *Discourse particles: descriptive and theoretical investigations on the logical, syntactic, and pragmatic properties of discourse particles in German*. Amsterdam/ Philadelphia: John Benjamins Publishing Company: 203-252.

AGIRRE, Domingo (1897). *Auñamendiko lorea*. Bilbo: Labayru ikastegia.

ALBIZU, Pablo (1991). «Sobre la existencia del movimiento largo de núcleos en euskera», Madril: Instituto Universitario Ortega y Gasset [Argitaratugabeko eskuizkribua].

ARCHU, Jean B. (1853). *Uskara eta franzes grammatika uskal-herrietako haurrenzat eguina*. Baiona: Foré et Laserre.

AROTÇARENA, Sauveur (1976). *Grammaire basque*. Baiona: Jakin.

ARREGI, Karlos, NEVINS, Andrew (2012). *Morphotactics: Basque auxiliaries and the structure of spellout*. Dordrecht/ New York: Springer.

BAYER, Josef (2009). «Discourse particles in questions», in GLOW Asia, 1-14. Hyderabad: The English and Foreign Languages University, 2009ko otsailaren 25-28an aurkeztua.

BAYER, Josef, OBENAUER, Hans-Georg (2011). «Discourse Particles, Clause Structure, and Question Types», *Linguistic Review* 28: 4 (2011): 449-491, <http://dx.doi.org/10.1515/tlir.2011.013>.

BIBERAUER, Theresa, SHEEHAN, Michelle (2011). «Introduction: particles through a modern syntactic lens», *The Linguistic Review* 28:4 (2011): 387-410.

CAMINO, Iñaki (2009). «Mugako hitzun eta aldaerak ipar-mendebaleko Zube-roan», *FLV* 111 (2009): 153-218.

——— (2017). *Amikuzeko eskualdeko (h)euskara*. Bilbo: Euskaltzaindia.

CAMPIÓN, Arturo (1884). *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Tolosa: Eusebio López.

CARDINALETTI, Anna (2011). «German and Italian modal particles and clause structure», *The Linguistic Review* 28:4 (2011): 493-531.

CARDINALETTI, Anna, STARKE, Michal (1999). «The typology of structural deficiency: A case study of the three classes of pronouns», in Henk van Riemsdijk (arg.). *Clitics in the languages of Europe*. Berlin/New York: De Gruyter Mouton: 145-233.

CHAHO, Augustin (1836). *Études grammaticales sur la langue euskarienne*. Paris: Arthus Bertrand.

CINQUE, Guglielmo (1999). *Adverbs and the universal hierarchy of functional projections*. New York: Oxford University Press.

CONIGLIO, Marco (2007). «German modal particles in the IP-domain», *Rivista di Grammatica Generativa* 32 (2007): 3-37.

——— (2008). «Modal particles in Italian», *Working Papers in Linguistics* 18 (2008): 91-129.

DARRIGOL, Jean Pierre (1827). *Dissertation critique et apologetique sur la langue basque*. Baiona: Duhart-Fauvet.

DAVANT, Jean-Louis (2008). *Zuberoako literaturaz: antologia laburra*. Bilbo: Euskaltzaindia.

DÖRING, Sophia (2016). *Modal Particles, Discourse Structure and Common Ground Management. Theoretical and Empirical Aspects*. Berlin: Humboldt Universität zu Berlin [Doktorego tesia].

ELORDIETA, Gorka (1997). *Morphosyntactic feature chains and phonological domains*. Los Angeles: University of Southern California [Doktorego tesia].

EPELDE, Irantzu (2003). *Larresoroko euskara*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego tesia].

ERDOZAINTEZI-ETXART, Manex (1982). *Gauaren atzekaldean*. Donostia: Elkarlanean.

ETXABURU, Jose M (1972). «Frasen ondarresas», *Euskera* 17 (1972): 104-111.

ETXEPARE, Ricardo (2010). «Omen bariazioan», in Beatriz Fernández, Pablo Albizu & Ricardo Etxepare (arg.). *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai*. Bilbo: ASJUren Gehigarriak 52: 85-112.

ETXEPARE, Ricardo, URÍA, Larraitx (2016). «Microsyntactic variation in the Basque hearsay evidential», in Beatriz Fernández & Jon Ortiz de Urbina (arg.).

Microparameters in the Grammar of Basque. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins: 265-288.

EUSKALTZAINDIA (1987). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.

——— (2016). *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa. VII, Lexikoa, Izen morfologia, sintaxia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GÈZE, Louis (1873). *Eléments de grammaire basque, dialecte souletin: suivis d'un vocabulaire basque-français et français-basque*. Baiona: Veuve Lamaignère.

GÖDEKE, Luisa (2019). *Wer untersucht denn schon auch rhetorische Fragen? Zur Markierung von Rhetorizität im Deutschen*. Göttingen: Georg-August-Universität Göttingen [Master amaierako lana].

HACK, Franziska M. (2014). «The particle *po* in the varieties of Dolomitic Ladin—grammaticalisation from a temporal adverb into an interrogative marker», *Studia Lingüística* 68:1 (2014): 49-76.

HUALDE, José I., ORTIZ DE URBINA, Jon (2003). *A grammar of Basque*. Berlin/Boston: de Gruyter Mouton.

ITHURRY, Jean (1895). *Grammaire basque: dialecte labourdin*. Baiona: Lamaignère.

KUONG, Io-Kei J. (2008). «Yes/no question particles revisited: The grammatical functions of *mo4*, *me1*, and *maa3*», in Marjorie Chang (arg.). *The 20th North American Conference on Chinese Linguistics (NACCL-20)*. Ohio: The Ohio State University: 715-733.

LAFITTE, Pierre (1944). *Grammaire basque: (navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Le Livre.

LARZABAL, Piarres (1992). *Piarres Larzabal idazlanak IV*. Donostia: Elkar.

LITTELL, Patrick, MATTHEWSON, Lisa, PETERSON, Tyler (2010). «On the semantics of conjectural questions», in Tyle Peterson & Uli Sauerland (arg.). *Evidence from evidentials, University of British Columbia Working Papers in Linguistics*. Vancouver: Columbia britainiarreko unibertsitatea: 89-104.

LIZARDI-ITUARTE, Aitor (2019). «Basque outer particles: a semantic and syntactic analysis for *e**», in IKER-UMR5478 *laborategiaren mintegia*. Baiona: IKER-UMR5478, 2019ko apirilaren 16an aurkeztua.

MITXELENA, Koldo, SARASOLA, Ibon (2017). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

MONFORTE, Sergio (2018). «Question particles in Basque», *Isogloss. A Journal on Variation of Romance and Iberian Languages*. 4: 1 (2018): 29-53, <https://doi.org/10.5565/rev/isogloss.48>.

——— (2020a). *Galderetako -a, al eta ote partikulak euskaraz. Sintaxia, mikroaldakortasuna eta interpretazioa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU [Doktorego-tesia].

——— (2020b). «Syntactic analyses of discourse particles through the micro-variation of Basque *ote*», *Glossa: a journal of general linguistics* 5:1 (2020): 1-29. DOI: <https://doi.org/10.5334/gjgl.1179>.

——— (2021). «Ote partikularen interpretazioaz eta bere mikroaldakortasunaz», *Uztaro*. Argitaratzeaz.

MUJIKA, José A (1988). «Partículas modales de la flexión verbal», *ASJU* 22:2 (1988): 463-478.

N'DIAYE-CORREARD, Geneviève (1970). *Structure du dialecte basque de Maya*. Berlin/ Boston: De Gruyter Mouton.

PAUL, Waltraud, PAN, Victor (2017). «What you see is what you get: Chinese sentence-final particles as head-final complementisers», in Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse particles. Formal approaches to their syntax and semantics*. Berlin/ Boston: De Gruyter: 49-77.

REPP, Sophie (2013). «Common ground management: Modal particles, illocutionary negation and VERUM», in Daniel Gutzmann & Hans-Martin Gärtner (arg.). *Beyond expressives—Explorations in Use-conditional meaning*. Leiden/ Boston: Brill: 231-274.

SCHERF, Nathalie (2017). «The syntax of Swedish modal particles», in Josef Bayer & Volker Struckmeier (arg.). *Discourse Particles: Formal Approaches to their Syntax and Semantics*. Berlin/ Boston: De Gruyter: 78-99.

STRUCKMEIER, Volker (2014). «Ja doch wohl C? Modal Particles in German as C-related elements», *Studia Linguistica* 68: 1 (2014): 16-48.

THIKOIKE, Mixel (2009). *Jin bezala*. Baiona: Maiatz.

UNAMUNO, Lorea, ENSUNZA, Ariane, IGLESIAS, Aitor, ORMAETXEA, Jose Luis (2012). «EAS Project: first data on syntactic variation in the Basque

language», in Xosé A. Álvarez (arg.). *Proceedings of the International Symposium on Limits and Areas in Dialectology (LimiAr)*. Lisboa: Centro de Linguística da Universidade de Lisboa: 225-235.

URQUIZU, Patri (1996). *Gramática de la lengua vasca*. Madril: UNED.

VILLASANTE, Luis (1980). *Sintaxis de la oración simple*. Oñati: Ediciones Franciscanas Arantzazu.

ZUAZO, Koldo (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkarlanean.

ZUBIRI, Ilari, ZUBIRI, Entzi (1995). *Euskal gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.